

Kaixo!

Guuk euskal telekomunikazio-konpainiak **Hackathon Guuk-en bigarren edizioa** jarri du martxan, eta telekomunikazioen sektorearekin lotutako erronka berriak jarri dizkie ekiteko gogoia duten unibertsitateko eta Lanbide Heziketako ikasleei (18 urtetik gora).

Zer abantaila ditu parte hartzeak?

Enpresa-erronka bati sormenez eta lankidetzaz aurre egiteak dakarren ikaskuntza-prozesu interesgarriaz gain, **talde irabazleak aukera dauka bere ideia errealitate bihurtzeko.**

Gainera, Guuk-ek aholkulari bat jarriko dio —nor eta zuzendari nagusia bera—, eta, bestetik, **BerriUp startup-azeleragailuaren trebakuntza-programa batean** parte hartuko du 2023an.

Gainera, hautatutako taldeak **hedabideekiko komunikazioari buruzko trebakuntza** jasoko du, **N+N** agentzia espezializatuaren bidez (www.enemaesener.eus), hedabideekiko harremana kudeatzen ikasteko, kanal hori funtsezkoa baita nabarmentasuna, posizionamendua eta ospea lortzeko.

Hona hemen deialdiaren xehetasunak:

Bakarka edo taldean (gehienez 3 lagun) har daiteke parte, eta izen-ematea **esteka** honen bidez eman daiteke. Izena emateko azken eguna **martxoaren 17a** da, eta ikasleek **martxoaren 31** arte izango dute proposamenak lantzeko aukera. **Apirilaren 14an** jakingo dira zein diren aukeratutako 10 proiektuak; amaiera, berriz, **apirilaren 21ean** izango da, Bilbon.

Hilabete horretan zehar, izena ematen duten taldeek bi saio egin beharko dituzte online, **martxoaren 20an eta 27an**. Lehenbiziko saioa kick offekoa izango da, eta Hackathon erakundeko antolaketa-taldeak eta Guuk-eko zuzendari nagusiak marka, balioak eta edizio berri honetako erronka aurkeztuko dituzte. Bigarren saioa denon zalantzak argitzeko izango da.

Entregatutako proiektuek kalitate-estandarrak betetzen dituztela bermatzeko, parte-hartzaileek euskarri-txantilo batzuk jasoko dituzte beren ideia antolatu eta garatzeko, eta Hackathon erakundeko lantaldearekin harremanetan egon ahal izango dira etengabe, zalantzak argitzeko, hackthon@guuk.eus helbide elektronikoaren bidez.

Guuk-ek parte hartzera animatzen zaituzte, aukera paregabea baita ekintzaile izateko, prestakuntza handitzeko, kontaktu berriak lortzeko eta ikasitako guztia praktikan jartzeko.



II. Hackathon Guuk ✨

Eman izena hemen: www.guuk.eus/eus/hackathon

Gero arte!

Ane del Horno eta Dani Farraro
II. Hackathon Guuk-en antolaketa-taldea